

Euskera kriminalizatzen sailtu da Eguesibarko PPk

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 05/02/2024

Inma Mujika PPko zinegotzia "gorrotoa" eta "terrorismoarekin" lotu du euskera.

"Euskara gorrotoaren hizkuntzatzen dugu, terrorismoaren garaiarekin lotzen dugu. Gauzak asko aldatu behar dira kultur elementu gisara hartzeko", esan du Inma Mujika Eguesibarko PPko zinegotziak. Eztabaida sortu da udaleko osoko bilkuran Korrika ekimenara dirulaguntza bideratzearen kontura. "Euskara ez da hizkuntza erakargarria askorentzat aspaldian perbertitu dutelako, tresna politiko gisara erabili dutelako eta terrorismoaren garaietara baino ez narama. Gorrotoarekin identifikatzen dugun hizkuntza da", adierazi du osoko bilkura horretan. "Euskarak ez du funtzio integratzailerik ahalbidetzen baizik sakabanaketa sozialerako", nabarmendu du. Korrika ekimenaren kontra "jende asko" dagoela eta ez dutela babestuno "inola ere" Korrikari babes ekonomikoa ematea.

Hala ere, ez da izan euskera kriminalizatzen duen politikari bakarra Nafarroan, izan ere, duela bi aste Orkoienko alkateak adierazpen polemikoak egin zituen baita ere, euskarari buruzko ordenantzen edukia husteak sortutako polemikaren berotasunean. Horietan, herriko adingabe euskaldunek "zerbitzu bikoitza" dutela ziurtatzen du, ludotekako euskarazko jarduerak eta gaztelaniazkoak ere erabil ditzaketelako.

<https://eh.lahaine.org/euskera-kriminalizatzen-saitu-da-eguesibarko>